

PRENTSA OHARRA

Irizarko zero igorpeneko autobus elektrikoa Valentziara ere iritsi da

Ormaiztegin, 2018ko otsailaren 16ean

Valentziako Udaleko Garraio Enpresak (EMT) zero igorpeneko lehen autobus elektrikoa aurkeztu du. Valentziako hiriburuko erdialdean emango du zerbitzua.

Osteguneko aurkezpenean izan ziren Valentziako alkate Joan Ribó, Mugikortasun iraunkorreko zinegotzi ordezkari Giuseppe Grezzi, Valentziako EMTko Zuzendari Nagusi Josep Enric Garcia eta Irizar e-mobilityko Zuzendari Hector Olabe. Irizarko zero igorpeneko Irizar ie bus % 100 elektrikoarekin batera teknologia hibridodun 35 unitate aurkeztu zituzten.

lazko ekain eta uztailean Valentzian egindako probek emaitza izugarri onak eman zituztenez ie bus bat erosi dute Valentzian, eta baita kotxe-tokian mantso kargatzeko sistema ere.

Irizar ie bus 12 metroko ibilgailua da 3 aterekin, 76 bidaiarirentzako gaitasuna du eta eguneko 200 kilometro baino gehiagoko autonomia. Ibilgailuak segurtasun kamerak eta Eco Assist sistema dute. Gidariari denbora errealean laguntzeko sistema bat da, eta aldi berean gidaritza optimizatzen laguntzen du, kontsumo energetikoa murriztuz eta autonomia handituz.

Lehen aldiz hiriko kaleetan autobus elektrikoak eta hibridoak ibiliko dira eta alkatearen hitzetan horri esker *"igorpenak, kontsumoa eta zarata murriztuko dira eta eguneko bidaiari kopurua hazi egingo da. EMTren apustu sendoa da, modernizaziora bideratuko gaituena ingurumen iraunkortasun irizpideekin bat eginez eta gaur egungo erronkei erantzunez, harrotzeko modukoa."*

Informazio gehiagorako:
Ana Eceiza,
aeceiza@irizar.com
Tel.: +34667181833